

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aukeran dantza taldearen ikuskizuna, ostiral honetan gaueko 21:30ean hasita

2017ko martxoaren 17a, 516 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

MAURIZIA IKUSKIZUNA BASTERON

Jokin Lizeaga urnietarraren denboraldi hasiera bikaina

Aurten parte hartu duen bi probatan, Aian eta Salamancan, erraztasun handiz gailendu da.

Lesioetatik errekupeatzeko bederatzi hilabeteko geldialdiaren ondotik, Jokin Lizeaga lehiaketan bete-betean murgildu da berriro. Modu ezin hobean, gainera, martxoaren 5ean Aiako mendi lasterketa irabaziz, eta joan zen igandean Salamancako Tres Valles mendi lasterketa irabaziz. Hango proban, errekor berria ipini zuen, gainera. Elkarriketa Salamancako lasterketaren aurretik egin dago.

Jada zenbat urte mendi lasterketan parte hartzen?

Jokin Lizeaga: 2007an, Selva de Ozan parte hartu nuen lehenengo mendi lasterketan, eta geroztik hor jarraitzen dut. Mendia beti izan dut gustuko, esfortzua ere bai, eta hasierako emaitza onak ikusirik jarraitzea animatu nintzen. Urte batzuk onak izan dira, beste batzuk ez hain onak, eta batik-bat azken hiru urteak nahiko txarrak izan direla esango nuke.

Hitz egin ezazu aipatu berri dituzun azken hiru urte horietaz...

J.L.: 2014ko Zegamako Mendi Maratoiaren bezperan, ebakuntza bat egitera behartu ninduen hernia bat agertu zen, eta geroztik burua ez dut as-



Estatu mailako herri ederrenetakoa da La Alberca, Sierra de Francian. Depa probaren aurkezle eta antolatzaileetakoa pozarren zegoen Jokin Lizeaga helmugara lehena iristen ikusterakoan. Argazkia Jose Vicentek atera zuen.

Modu ezin hobean ekin dio denboraldiari, parte hartu duen bi lasterketan garaipena eskuratuz

korik altxa. Ondoren, amaren gaixotasuna eta heriotza etorri zen, horrek ere lehiaketatik hilabete batzuetarako urrundundu nindularik. Gero, Bisaurinen elurretan izan nuen istripu larria, aldakako ligadurak apurtu nituena. 2016an, lehenengo lasterketan, zaintiratua egin nuen Katalunian eta behar be-

zala ez sendatzeagatik Leitzaun berriro txorkatila hautsi nuen. Geroztik, errehabilitazioan, minarekin ibili naiz eta konpetiziora oraintxe itzuli berria naiz.

Lesioa erabat sendatuta dago?

J.L.: Molestiak gutxitu badira ere, hor darraite. Urtarrilera arte ezin izan dut korrika ibili. Urtarrilean eta otsailean mendian ibili naiz, tarteka molestiak izan ditudalarik, baina bi hilabete hauetako prozesua ikusita, hoberantz joango denaren itxaropena badut.

Zegama-Aizkorrikoa proba kuttunetakoa du, eta aurten lasterketa ona egiteko gogotsu dago

Aiako lasterketa azterketa modukoa izan al zen?

J.L.: Bai, Salamancara noa 36 kilometrotako proba batean parte hartzera. Izena eman ondoren kezka etorri ziren, ez baitakit nola erantzun didan hankak. Horregatik Aiakoan irten eta molestiarik ez nuela ikusi nuen.

[KIROLAK, 10. ORRIALDEA]

'Martxoak 8, 8 emakume' kalejira



Eguzkiak lagunduta, giro paregabean igaro da emakumeen aldeko kalejira koloretsua.

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEAK]

Andoaingo laguntza Sahara aldera



Aurtengo elikagai bilketan 11.817 kilo janari bildu dituzte. Andoaingo Hurria Sahara elkarteak, aurtengoa ere, herrikideen eta elkarte ezberdinen elkartasuna eskertu nahi izan du.

[AZKENA, 12. ORRIALDEA]

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Aiurri astekaria goitik behera berritzera goaz

2 aste barru

Lizeagaren denboraldi hasiera bikaina
Parte hartu duen bi probatan garaile izan da

JOXINIXIO
PIZKUNDE ZAPUZTUA

ANDOAINGO BERTSOLARITZA XX. MENDEAN

Liburudendetan eta Aiurriin salgai

HITZALDIA ANDOINGO KULTUR ETXEAN, IPAR HAIZEA ELKARTEAK ANTOLATUTA

Erraustegiaren alternatiba aurkeztuko dute Urigainen

Aurreko astean Erraustegiaren aurkako mugimenduak Zubietako erraustegi egitasmoa gerarazteko egitasmoa aurkeztu zuen. Eta iragarpen horri lotuta, Andoingo Ipar Haizea mugimenduak “Alterna-

tiba dagoelako, errausketarik ez” izenburupean hitzaldia antolatu du datorren martxoaren 21erako. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da, Ainhoa Intxaurrendieta eta Juan Karlos Izagirren parte hartzearekin.

Juan Karlos Izagirre aski ezaguna da, Donostiako alkate izan zelako aurreko agintaldian. Hondakin afera gertutik ezagutzen du eta Andoainera medikuen plataformako ordezkari gisa arituko da. Ainhoa Intxaurrendieta, bestalde, aurreko agintaldian Gipuzkoako Hondakin Kontsorzioko lehendakaria izan zen. Herritarren erantzukizunarekin eta instituzioen laguntzarekin, gaikako bilketa ona egitearen aldekoak dira biak ere. Erraustegiaren aurkako mugimenduak berriki aurkeztu du erraustegiaren alternatiba, eta horixe defendatzeko manifestazioa deitu dute.



HITZORDUAK

Ipar Haizea:

- Hitzaldia: “Alternatiba dagoelako, errausketarik ez”.
19:00. Urigain.
Martxoak 21, asteartea.

Erraustegiaren aurkako mugimendua:

- Agerraldia:
12:00. Anoeta estadioa.
Martxoak 18, larunbata.
- Manifestazioa:
17:00. Anoeta estadioa.
Martxoak 25, larunbata.

Errausketarik gabeko alternatiba eskuera daukagu

POSTONTZIA: Erraustegiaren aurkako mugimendua

Zubietako Erraustegia planifikatuta dago Gipuzkoako herritarrok urtean 200.000 tona zabor nahasi sortu eta kiskaltzeko. 2016an gutxiago sortu dugu, 150.000 tona inguru, baina oso denbora gutxian 50.000 tonatara murriztu genezake. Oso erraz.

2017an Gipuzkoako lau herritarretatik batek etxeko hondakinak ongi bereizten ditu, %70etik gora birziklatzeko moduan bilduz eta pertsonako/urteko 80 kilo errefus baino gutxiago entregatuz. 2016an Debagoienak osorik hartuta %80 bereizi eta errefusa 80 Kg-ra murriztea lortu du, eta badira Gipuzkoan herriak 50 Kg edo gutxiagotan dabilzanak. Arazoa azken errefus kopurua da, hori gutxitzeak dauka lehentasuna.

Udal eta herritar guztiek gaikako bilketa ona eta zuzena egitea da lehenbiziko gakoa. Mundu osoan ezaguna da nola egin, eta Gipuzkoan ere bai: hondakinak ondo sailkatzea herritar guztien bete beharra da eta administrazioak erraztasunak jartzen dizkio herritarri bilketa on batekin. 80-50 Kg errefus horiek gehiago murrizteko, hurrengo urratsa da tarifa justua, familia bakoitzak sortzen duen kopuruaren arabera tasa pagatuz, eta horrekin batera sustatuz berrerabilpena, produktuen sortzaileen erantzukizuna diseinuetan, eta abar.

Gipuzkoa osoak lortu dezake eta lortu behar du hondakinak kopuru horietara murriztea. Ez da onargarria batzuek pertsonako 50 Kg azpitik sortzea eta beste udal batzuek 250 edo 300 Kg sortzea. Ez da logikoa, ez justua. Gutxienez Debagoienak 2016an lortu duen pertsonako 80 Kg-taraino denak murriztea lortu daiteke eta lortu behar da. Hori eginez gero, Gipuzkoak 50.000 tona errefus sor-

tuko ditu. Bigarren urratsa administrazioak eman behar du gaika ondo bildutako hondakinak ondo tratatzeko azpiegiturak prestatuz. Bete ere hondakin hierarkia zorrotz errespetatuz, hau da, lehentasuna emanez ondoko aukerei: prebentzioa, berrerabilpena, birziklatzea, bestelako balorizazioa eta azken biltegia. Materia ez baita eliminatzen, transformatu baizik.

Hondakin organikoak oso garbi biltzen da gaikako bilketa ona egindakoan. Horren tratamenduak ez du sekreturik: konpostatzea. Sorburutik ahalik eta hurbilen egitea da onena, garbiena, merkeena eta iraunkorrena. Familiak bakarka (autokonposta) edo taldeka (auzokonposta) egitea sustatzen da, tarifetan hobariak jarriz. Udalerrri txikiak herrian bertan nekazariak elkarlanean tratatzeko bidea ere egin behar da. Gainerako organikoak, konpost planta handietan tratatzen da, batzuetan zuzenean konpostatzeko, bestetan horren aurretik biometanizazioz gasa sortzeko. Urgentziazkoa da Gipuzkoak dagoeneko organikoarentzako daukan azpiegiturak hobetzea eta behar diren berriak sortzea.

Botila eta beirazko ontzien birziklatzea ere ezaguna da. Hobetu behar da horien garbiketa eta berrerabilpena, baina dagoeneko ondo kontrolatzen den gaia da. Gauza bera gertatzen da paper eta kartoiak, birziklatzeko eta merkaturatzeko zirkuituak martxan daude.

Ontzi arinen gaikako bilketa txukunik egin ezean, horiek denak doaz lurpera edo erraustegira; gaika ondo bilduz gero, horietatik asko aprobetxatu eta birziklatzen da, eta, gainera, konpainiak eta agintariak derrigortzen ditu enbalajeen gaia bideratzera: produktoreek egin behar dute horien birziklatzearen kargu, agintariak aldarazi behar dizkie birziklatzen zailak edo ezinak diren ontziak eta produktuak. Gaikako bilketa ona egiten den herri eta mankomunitateetan garbi ikusi dira onura horiek.

Hala ere, herritarra kezkatzen duena izaten da: “Eta azken errefusarekin zer egin”. Administrazioak bi situazio konpondu behar ditu batera:

1. 50.000 tona errefusera azkar iristeko bidea antolatu.
2. 150.000 tonatik 50.000 tonatara arteko trantsizioa nola antolatu errausketarik gabe. Gaikako bilketa %70 baino gehiago.

Azken errefusari, Tratamendu Mekaniko Biologikoa (TMB) ematen zaio planta berezi batean. Tratamendu Mekanikoarekin errefusari ateratzen zaizkio aprobetatzeko daukan materialak eta gainerako guztiak ondo sailkatzen. Tratamendu Biologikoarekin egonkortzen zaio biologikoa duen guztia, organikoa den guztia. TMB tratamendua da, baina planta eredu bat baino gehiago daude.

Gipuzkoak trantsizioko fase honetan errefus asko tratatu behar du, baina 50.000 tonatara hurbildu ahala gero eta gutxiago, gero eta organiko gutxiagorekin, gero eta errefus “garbiagoa”. Gipuzkoak behar duen TMB planta horretarako diseinatuta egon behar du. Aurreko legealdian Gipuzkoako Foru Aldundiak presentatu zuen proiektu oso zehaztu bat, diruz kostatuko dena ere kalkulatu: berriro jarri behar da hura mahai gainean.

GHKk alternatibaren proiektua egin dauka lehenetik; 70 milioi euro nahikoak dira, erraustegi beharrik gabe hondakin gaia bideratzeko. Dirutan ere ez dago konparaziorik, errauste-plantak 212 milioi euroko aurrekontua bait dauka. Hor dago negoziaketa bat hasteko oinarriko dokumentu bat.

Proiektu hori egiterakoan, azpiegitura malgua izatea bilatu zen, hau da, egungo beharrei tratamendua eskaintzeko kapacitatea du (150-160.000 Tn zabor, 20.000 Tn gaika bildutako organiko konpostatzeko eta 13.000 Tn urtean ontzi arin sailkatzeko), baina era berean, gaikako bilketa igotzearekin batera, hasieran errefusa tratatzeko modulu

batzuk, gaika bildutako organiko edo ontzi arinak tratatzeko aukerarekin. Azpiegitura bera da egoera ezberdinetara egokitzen dena eta ez du kudeaketa baldintzatzen. Diseinatutako TMBa egingo balitz, zenbat eta gehiago gaika biltzen bada, hobe. Zenbat eta gaikako bilketa hobe egin, orduan eta kudeaketa merkeago litzateke.

Eta TMBak errefusari aprobetatzeko —botilak, metalak, paperak...— kendu eta organikoa neutralizatu ostean, TMBa iritsitako 50.000 tona horiek azkenean gera daitezke 25.000 tonatan gehienez ere eta inerteentzako biltegi ondo prestatuetan utziko dira. Konparaziorako, erraustegiak 150.000 tona zabor nahasi erretakoan, inguruko haizea kutsatzeaz eta milaka tona baliabide alferrik galtzeaz gain, amaieran errauts eta eskoria toxikoen artean utziko ditu 50.000 tona biltegiaren lagatzeko. Bizkaian ondo ikasi dute hori.

Laburbilduz: gaikako bilketa ona Gipuzkoa osoa zabaldu eta ondo sailkatuta biltzen dena tratatzeko azpiegitura egokiak bukatu, eta geratzen den azken errefusa ere tratatu. Sortutako hondakin guztiak tratatu daitezke (DdP edo Arau Foralean biltzen den *Vertido 0 de residuos primarios*). Hori eginda, oso epe laburrean martxan egon daitezke (errauste planta eraikitze baina denbora laburragoan) Gipuzkoako hondakinak ondo bideratzeko sistema eta azpiegiturak lanean.

Hortik aurrera zer? Europar Batasunak markatzen du bere hierarkiarekin eta Ekonomia Zirkularraren irizpideekin nola hobetu behar den hondakin aprobetxamendua, berrerabilpena, birziklatzea eta murrizteko sustatuz. Europar badira dagoeneko martxan Gipuzkoa adinako eskualde handiak (Italiako Treviso...) 50 Kg errefusetik zortzi urteko epean 10 Kg-tara murrizteko lanean ari direnak. Lurrez eta lehengaiz oso urri dabilen eta dagoeneko kutsaduraz gainezka dagoen Gipuzkoak puntako eskualdeekin elkarlanean aritu behar du.

Ikusentzunezkoa eta solasaldia Marimore elkartearen eskutik

Berdintasunaren bidean

“Pertsona zapaldu eta oprimitu guztien alde egiten duen mugimendua da”, honela definitzen dute feminismoa Marimore Urnietar talde feministako kideek. Oinarrian ideia hori izanik, eta herritarren galdera zein zalan-tzen inguruan eztabaidatu eta pentsaerak zabaltzeko prest daudenez, larunbat arratsaldean Urnietar batzuekin batera egin duten dokumentalaren inguruan hitz egiteko solasaldia antolatu zuten Lekaion.

Bilgune horretara adin guztietako herritarrak gerturatu ziren eta hizlariak dokumentalaren inguruan hitz egiteko tartea zabaldu zuten, guztien artean giro eroso sortuz. Noski, iritzi ezberdinak azalera ziren bertan, baina guztiak ongi etorriak izan ziren. Hainbat kontzeptu izan ziren berriktaldi horretan hizpide, hala nola, erabakia, betebeharrak, eskubidea, zapalkuntza eta hezkuntza. Hitz potolo guzti horietatik honako



Marimore taldeko kideak joan zen larunbatean Lekaion egin zuten ospakizunean.

ideia hau ondorioztatu zein gailendu zen: eskubide berdinaren aldeko borroka.

Bestalde, dokumentalean, familia, ezkontza eta feminismoa bezalako kontzeptuak ere azalera ziren eta baita herritarrek horien inguruan esateko zutena ere. Familiaren inguruan, babesa transmititzen duen gertuko jende bezala definitzen dute. Ezkontza, ordea, legearen baitan ingurukoak ba-

besteko modua bezala. Feminismoari dagokionez, lehen aipatutako ideari indarra eman ziztaion berriz ere, eskubide berdinaren aldeko borrokari, hain zuzen ere.

Feminismoa sarritan gai arrotza egiten da eta benetan interesgarri dira horrelako bilguneak sortzea, egindako lana islatu eta herritarren iritzia zein hitza kontuan hartzen direlako.

Deialdia Urnietako 13-17 urteko gazteei zuzendurik dago

Gazte lehiaketa martxan

“Lehiaketa honen helburua gazteek sare sozialen erabilera ona egiten dutela erakustea da”, adierazi du Unai Esnal hezitzaileak. Balore positiboak sustatzen dituzten irudiak nabarmenduko dituzte, Instagram erabiltzen duten 13-17 urte artekoek zuzenduriko lehiaketa.

Gazteek teknologiaren erabilera dagozkion portaera eta jarrera egokiak barneratzeko asmoz, Foru Aldundiak Gipuzkoako Gaztelekuarekin elkarlanean argazki lehiaketa jarri du martxan. Instagram bidezko txapelketa da, 13-17 urte bitarteko gipuzkoarrei zuzendua.

Gipuzkoa mailako lehiaketa izanagatik ere, Urnietako parte hartzaile tablet bat irabazteko aukera izango dute.

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Lehiaketan parte hartzeko gaia irekia da. Hezitzaileek azaldu dutenez, bizitza errealekin lotura izatea eta nerabea den bezala erakustea komeni da. Argazkiaren originaltasuna, balio ona erakustea, atsegite kopurua eta kalitatea baloratu-tuko dituzte; baita balio erantsia ematen dioten elementuak ere: etiketak, efektuak, estekak...

Argazki onenak ‘Gazte Oporraldiak’ programan Menorkara joateko bi plaza irabaziko ditu.



Gazteleku arduradunak aurtengo lehiaketaren afitzak eskuetan dituztela.

Bigarren postuan geratzen denak 250 euroko erosketaren txartela irabaziko du. Eta, azkenik, hirugarrengoa 150 euroko erosketaren txartela. Aurten, berrikuntza bezala, sari bereziak eskainiko dituzte: bi aipamen berezi, Gazteleku onenaren taldeko saria eta bideo onenaren saria. Lehiaketa maiatzaren 7an amaituko da eta irabazleak 10ean jakinaraziko dituzte.

OSPETSUEN AHOTIK

Lehiaketa martxan dago jada eta martxoan zehar egindako ekimen ezberdinen bidez. Sare sozialen eta mugikorren erabilera lotutako ekintzak borobiltzeko, martxoaren 24an **Xabi Solano** musikaria, **Nahikari**

Garcia Realeko jokalaria eta **Juantxo Arakama** Glaukomako abeslaria Gaztelekuera joango dira: “Gazteentzat erreferente diren hiru pertsonaia ospetsu hauek sare sozialei zer nolako erabilera ematen dieten entzungo dugu”. 17:00etan hasiko da solasaldia.

ARGAZKIAK ATERATZEKO UNEA

Martxoaren 31n argazkilari profesional bat izango da Gazteleku, mugikorrekin argazki erakargarriak nola ateratu erakustera: “Bere bisita lehiaketa-rekin lotu nahi dugu; horrela, egunean bertan gazteak parte hartzerantz animatuko ditugu”. Sariak bikainak izatea, horixe parte hartzeko arrazoietakoa.

Korrika eguna Urnietan, ostiral honetan



Salam ikuskizuna, ostiral honetan Urnietan.

Ostiral honetan, martxoak 17, Zubitxo plaza Korrika gune bilakatuko da. Arratsaldean zehar, Korrikako arropa-postua jarriko dute eta bertan Korrika laguntzaile egiteko aukera edota laguntza ekonomiko emateko aukera izango da.

Arratsaldeko 18:00etan Egape dantza taldekoek Korrika abestiaz baliatuz, dantza saioa eskainiko dute. Eta, ondoren, 19:00ak aldera Xilipurdi taldearen eskutik “Salam” antzerki ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da.

Super H taldearen zozketa



Super H elkartearen kideak txartel saridunaren jabeekin.

Donostiako Ospitaleko haurren eremua hobetzeko lanean dabil Super H elkartea. Hori dela eta, errifa bat jarri zuten martxan eta joan zen otsailaren 15ean zozketatu

zuten. ONCEko zenbaki sariduna 6201 izan zenez, hurrenekoa irabazlea. Argazkian Super H elkartearen kideak Ezkioko Aloña Etxaniz errifaren irabazleekin.

Berdintasunaren plana



Berdintasunaren bigarren plana osatzeko bilkura egin zuten Lekaion.

Urnietako Udala ‘Berdintasun plana’ bigarren bertsioan mugilduta dago erabat. Deitu zuten bilerara hainbat herri eragile hurbildu zen Lekaion.

Bertan planak zein lehentasun izango dituen zehaztu behar zegoen, horiek lortzeko behar diren ekintzak eta baliabideak definitzearekin batera.

ELKARRIZKETA

Teresa Toda, jubilatuta ere konpromisoari eutsiz

Teresa Toda Iglesia 1950eko ekainaren 24an jaio zen Brasilgo Porto Alegre hirian. Lau anai-arrebetatik zaharrena da. Aita jatorriz katalana eta ama, berriz, Valladolidekoa. Aita diplomatikoa zen eta

haurtzaroan bizilekua maiz aldatu behar izan zuen. Brasilen, Txilen, Estatu Batuetan edota Ingalaterran bizi izan da. Euskal Herriko gatazka barrutik ezagutu eta bizi izan du.

Noiz erabaki zenuen kazetari izan behar zenuela?

Teresa Toda: Beti interesatu izan zait munduan zer gertatzen den jakitea. Txikia nintzelarik gertaera inportanteak gauzatu ziren. Gogoan dut Amerikako Estatu Batuetan bizi ginela Kennedy hil zutela. Garai hartan hasi ziren ere komunitate beltzaren errebolta, edota Vietnamgo gerra.

Eta kazetaritza ikasten hasi zinen...

T.T. 1968an hasi nintzen Opuseko unibertsitatean, Iruñan. Orduan izan nuen nire lehenengo kontaktua Euskal Herriarekin. Han ezagutu nituen euskaraz hitz egiten zuten lehenbiziko pertsonak. Ez nuen denbora askorik iraun, hango errebolta eta mobidengatik ikasle talde handi bat kanporatu gintuztelako. Eta, ondorioz, Madrileko Escuela Oficial de Periodismo deiturikoan bukatu nituen ikasketak.

Teresa kazetaria, non hasi zen lanean?

T.T. ABCn hasi nintzen praktikatan. Francoren garaia zen eta orduko egunkari guztiak nahiko antzekoak ziren, zentsura handia zegoen. Ondoren Kataluniara joan nintzen bizitzera eta han Comisiones Obreras sindikatuko prentsa-bulegoan lan egin nuen 1981era arte. Gero, Madrileratu bueltan, MC aldizkarian lanean ari nintzelarik, Egin egunkariakoak nirekin harremanetan jarri ziren. Madrilen korrespontsal baten bila zebiltzala eta, horrela hasi nintzen Eginen lanean.

Zentsura garaiko oroitzapen konkreturik ba al duzu?

T.T. Bai, adibidez, ezin zen huelga hitza erabili, edota kontu handiz ibili behar zen Euskal Herriko gaietan. ABCn nintzela Huarte konstruktorearen bahiketa izan zela gogoan dut. Vil hitza maiz erabiltzen zen albisteari zentzu txarra emateko. Karrera bukatzeko tesina Saharari buruz egin nuen. Eta Saharari buruzko materiala lortzea oso konplikatu zen orduan. Dena kontrolpean zegoen. Informazioa prentsa klandestinoaren bidez edota Frente Polisarioaren bidez lortu nuen. Tesina oso ondo kalifikatu zidaten, baina ezin zen argitaratu, zentsurak gaia "materia reservada" modura kontsideratu zuelako.



Teresa Toda 2007ko udazkenean, 18/98 sumariopean gartzeleratu aurreko bilkuran. Urnietako San Juan plazan elkarretaratzea deitu zuten haren espetxeratzea salatuta eta elkartzasuna adierazteko.

Nola gogoratzen dituzu laurogeiko hamarkadan Madrileko Egin-en delegaritzan emandako urteak?

T.T. Hasieran, gogoan dut berriak bidaltzeko telex bidez egiten nuela Correosera joanda. Edo telefonoz 20 duroko txanponekin. Egoera benetan prekariora zen.

Zer gai zebilkizun eskuartearen kronika haietan?

T.T. Batez ere, eta zoritxarrez, Audientzia Nazionalarekin lotutako gaiak: Atxiloketak, epaiketak, tortura salaketak. Gogoan ditut 1987ko errefuxiatuen entrega masiboak. Kongresuko berriak ere ematen nituen. Horrez gain, Madrileko gai sozial batzuk ere lantzen genituen, "Madrid contra la droga" bezalako mugimenduen berri emanez. Espetxeetan bisitaldiak eginez ibiltzen zen Enrique de Castro apaizaren oso oroitzapen onak ditut. "El Nani"ren kasuan emandako polizia bidegabekeriak eta abar. GAL taldearen inguruko lehenengo ikerketak ere bai.

Beste hedabideetako kazetariekin harreman ona nuen.

1989an Madrilen Hotel Alcala Josu Muguruza ezker abertzaleko diputatua erail zuten atentatuan bertan zinen.

T.T. Garai gogorak izan ziren haiek. "Argeleko mahaia" deiturikoa eten berria zen, hiru hilabeteko su-etenaren ondoren. Audientzia Nazionalako Carmen Tagle fiskala erail berria zuen ETak. Eta giro horretan etorri zen Herri Batasunako diputatu eta senadoreen aurkako atentatua. Josu laguna eta lan-kidea nuen eta bizitza osorako markatu nauen bizipen horietakoa izan zen niretzat. Mingarria da, oraindik ere, atentatuaren ikerketan ez zela batere sakondu ikustea.

Noiz etorri zinen Euskal Herrira bizitzera?

T.T. 1990eko apirilean izan zen. Lehenik Bilbora, urtebete egin nuen bertan. Ondoren Errenteriarra eta handik Urnietara. Egin-en hainbat berrikuntza egin genituen urte haietan, energia handia zegoen eta proiektu polita izan zen. Ondoren, etorri ziren boikot publikarioak eta abar. Eta berriro, garai gogorak.

"1992tik 1998ra Egin egunkariako zuzendaritza taldeko kide izan nintzen. Eginen itxiera momentu latza izan zen, jendea espetxeratu izan zelako"

Eta Eginen itxiera etorri zen.

T.T. 1992tik itxiera arte (1998) zuzendaritza taldeko kide izan nintzen. Itxierarena momentu latza izan zen, jendea espetxeratu izan zelako. Ni ez ninduten espetxeratu, baina fiantsa jarri beharra izan nuen, pasaporteak kendu zituzten, epaitegira sinatzera joan behar izaten nuen, eta zortzi urtez epaiketaren zain egon nintzen. Azkenean, beste hainbat elkarte eta abarrekin eta, "dena ETA da" argudio ezagunarekin, "18/98" sumariopean 47 pertsona epaituak izan ginen.

Eta espetxealdia etorri zen, zein akusaziopean?

T.T. Bai. Akusazioa ETarekin kolaboratzea zen. Horretarako polizia-erakundeak erabili zituzten, Guardia Zibila-aren txostenak eta abar. Azkenean, iritzi politikoa eta erabaki politikoa izan zen. Hasieran, hamar urteko kondena ezarri zidaten, baina gero seira jaitsi zuten.

Tortura kasurik izan al zen orduan?

T.T. Egin-en kasuan ez, baina "18/98" gure aurkako sumarioan bai. Hor daude Nekane Txapartegi edota Mikel Egiarren kasuak.

Espetxealdiaz zer esango zenuke?

T.T. Espetxealdia oso momentu gogorra da edozeinen bizitzan. Nik azken finean 6 urte besterik ez ditut egin, beste kasu batzuk ikusita ez da hainbeste. Lehen bi urteak Salamancan egin nituen eta ondorengo laurak Cordoban. Preso politiko asko ezagutu nituen. Ziegan bi lagun baino ezin ginen egon. Asko ikasten da harremanak lantzen eta zaintzen. Toki txikitxo batean, baldintza zailetan, bakoitzaren ezaugarriak azalratzen dira. Elkartzasun sentimendua eta adiskidetasuna asko lantzen dira. Preso arruntekin ere harremanak banituen, baina ez zen erraza, patioan egoteko lau ordu bakarrik genituelako. Lehenengo graduan egonik ezin da parte

ELKARRIZKETA

“Espetxeek bergizarteratzeko ez dute balio, ez emakumeentzako, ez gizonentzako. Soilik zu eta zure familia zigortzeko balio du”

hartu espetxean antolatzen diren jardueretan eta hori pairatu nuen bereziki Cordobako egonaldian, denetan ez baitute zorroztasun maila berdina erabiltzen.

Konturatzen zara emakumeak espetxean ere bigarren mailako pertsonak gabela. Espetxeak gizonezkoentzako diseinatuta daude. Adibidez, Salamancako espetxeko patioko komunetan urinarioak zeuden, horrelako detaile txikietan nabaritzen da, eta baita trataera ere. Espetxeek bergizarteratzeko ez dute balio, ez emakumeentzako, ez gizonentzako. Planteamentua oso zahartuta dago, gizartean ez dugu beste alternatibarik asmatu baina oraingoak ez du balio. Preso politikoen kasuan are gutxiago. Soilik zu eta zure familia zigortzeko balio du.

Espetxetik irtenda, presoan aldeko mugimenduetan inplikatu zara.

T.T. Askatu aurretik konprometituta nengoen, eta askatu ondoren are eta gehiago. Nire energia horretara bideratzea erabaki nuen. Oso ondo ezagutzen baititut alde biak, espetxekoa eta presoan familiena.

Eta zertan datza zure lana?

T.T. Sare mugimenduan aritu naiz hainbat lanetan, pixkanaka-pixkanaka indartuz doa mugimendua, baina oraindik gehiago garatu behar da. Jendartetik erantzun politikak jaso izan dira, baina ibilbide luzea dago egiteko, batez ere, ezberdinen arteko lana sendotzeko bidean. Hala ere, alor horretan ere emaitza batzuk lortu dira. Ideologia ezberdinetako babesleak baititugu, eta hori da gure helburua. Hainbat zailtasun ere badugu, adibidez ekonomikoa. 2015eko Bilboko manifestazioaren ondoren konfiskatutako dirutza ez digute oraindik bueltatu.

Sare bezalako mugimenduak oraindik beharrezkoak al dira?

T.T. Bai, beharrezkoa da momentu honetan ere. Askotan ematen du gatazka-oren ondorioak bideratuta daudela, eta ez da horrela. Presoen gaia hor dago, sufrimendu asko eragiten ari da espetxe barruan eta kanpoan. Hor daude, bereziki momentu honetan larriki gaixo dauden presoak. Horien kasuak bideratzea presazkoa da. Ez badugu horretaz kontzientzia hartzen ez dugu lortuko alderdi politikoak zein instituzioak mugiaraztea. Une hauetan gure eskualde honetan preso gaixo asko dago eta beharrezkoa dute espetxetatik ateratzea beren egoera behar bezala bideratzeko. Jubilatua naiz, baina nire konpromisoarekin jarraituko dut.

Lehen aipatu dugu Egin egunkariaren



Teresa Toda joan zen astean Urnietan bertan ateratako argazkian.

Itxiera. Kasu hori eta Euskal Herrian azken hamarkadatan gertatutakoak gatzetxo askok ez dituzte ezagutzen. Noiz da momentu egokia historia kontatzeko?

T.T. Egokiena izango litzateke belaunaldi batetik bestera transmisio naturala egitea, baina iruditzen zait horretan huts egin dugula.

Arrazoi asko direla medio, hemen gutxi hitz egin da gertatutakoaz. Orain, hori da egin beharko litzatekeen gauzako bat, baina hainbestetan aipatzen den errelato famatu hori ez da hain erraza. Joango da eraikitzen, baina uste dut perspektiba pixka batekin egin behar dela, eta ez bat-batean eta bakoitzaren behar politikoen arabera. Lortu beharko genuke pixka bat bereiztea, zer den interes politikokoa eta zer den jendartea sendotzeko bidean egin genezakeena. Batzuetan ematen dit inpresioa dena azkarregi egin nahi dutela, eta elkarrengana hurbiltzeko, sendotzeko, elkar entzuteko prozesuek bere denbora behar dute. Nahiko esperientzia badaude munduan zehar, begira Irlandako kasua, oraindik errelatoa egiten ari dira. Batzuetan ematen du gurdia idien aurretik jartzen dugula. Ezin gara gertatu, baina ezta korrika hasi ere.

Beraz, alde batetik historia egongo litzateke eta bestetik memoria?

T.T. Historia izango litzateke datuak eta gertaerak bata-bestearen atzetik kontatzea, eta aldiz memoria gertaeretan parte hartu dutenen errelatoa.

Adierazpen askatasunari dagokionean, gaur egungo prentsa nola ikusten duzu?

T.T. Gazteek agian ez dute azken urteetako gauza askoren berri baina adierazpen askatasunaren aurka egiten denaren berri bai Twitter bidez, sareetan eta abar

“Mordaza legea” aplikatuz. Iruditzen zait atzerapausu ikaragarriak ematen ari direla azken urte hauetan, eta kazetariak, orokorrean, ez duela egoerak eskatzen duen maila ematen. Uste dut ez dela egon adierazpen askatasunaren defentsa sutsurik, eta gure kasuaz ez dut hitz egingo lotsagarria izan zelako, baita Euskal Herrian ere, kazetari batzuk kenduta, ez genuelako babesik jaso. Gaurko egunera bueltatuz, badaude ukitzen ez diren gai batzuk, esate baterako, estatu mailan. Euskal gatazkarena desagertu egin da prentsatik, berez, horrela erabaki delako, bukatutako zerbaiten itxura emateko.

Beraz, kazetariak nahiko akritiko ikusten dituzu...

T.T. Lana egin behar da gauzak behar den moduan aztertzeke, eta ez da egiten. Uste dut kazetaritza kritikorik apenas geratzen dela. Euskal Herrian oso gutxi, eta estatuan gutxiago. Dena onartzen da, prentsa oharrak bere horretan transmititzen dira. Badakit, tartean gauza asko nahasten direla, kazetari gazteak modu prekarioan ari direla lanean, baina hala eta guztiz ere, gure garaian gehixeago mugitzen ginen, ikerketarako grina genuen. Kazetari ikertzaila desagertu egin da.

Trantsizio sakon bat bizitzen ari da prentsa, paperezko prentsa hiltzeaz dago. Denek daukate edizio digital bat baina trantsizio honetan gauza gutxitan asmatzen ari gabela uste dut. Pentsatzen dut urte batzuetan landuko dela protokolo moduko zerbait, hain erraz hedatu daitekeen informazioarekin kalteak ere erraz sortu baiditezke.

Une honetan gai honi buruzko eztabaida oso interesgarriak daude Europa osoan zehar.

“Kazetaritza kritikorik apenas geratzen da. Hemen oso gutxi, estatuan gutxiago. Prentsa oharrak bere horretan transmititzen dira”

Telebista kate handietako tertulianoez zer diozu?

T.T. Batzuk hor daude askatasun osoz edozein astakeria esaten. Sistemaren aurka doan edozer gauza kolokan jartzen dute, berdin da, Podemos, Katalunia, langileen greba bat, EH Bildu... Ematen du askatasuna dagoela gero eta parametro estuagoetan. Baina hauei kontra egiteko ez dago ezer, ez dago jenderik horretarako prestatuta. Hala ere, iruditzen zait tertuliak orokorrean superfizialak direla. Badaude pertsonaia batzuk komikietakoak diruditenak, euren buruaren karikatura direnak. Jada ez dute bere iritzia ematen duen kazetari baten lekua betetzen. Horrek ez du laguntzen jendartean dauden arazoei aurre egiten. Lau topiko esatera mugatzen da.

Gazteak ez al dira ari ohitzen informazio zuzena, azkarra, kontrastatu gabekoa, sakontasunik gabekoa jasotzera?

T.T. Beraiek horrela hezi dira norbaitek bidea ireki dielako. Sistema osoak horretara bideratu dituelako. Baina halere, ni ez naiz hain kritikoa, zeren eta pentsatzen dut harramanetarako modu berri bat sortzen ari dela.

Agian sakontasuna faltako da, izango da horizontalegia baina trantsizio batean gaude, beraz, ezin ditugu gure parametroekin neurtu. Heltzen joaten diren heinean joango dira garatzen. Ez dugu ahaztu behar orain leherketa moduko bat bizi dugula, eta komunikatzeko modu berriak etengabe sortuko direla.

Nork jarriko du, ordea, orden bat? Inportantea da espirtu kritikoa sortzea eta hori sare sozialetan ere sor daiteke. Dena aldatzen joango da eta gustatu ala ez belaunaldi berriek biziko duten komunikatzeko modua izango da hori. Betiko gauzak kudeatzeko beste modu bat izango da.

Bake eta bizikidetzaren lantzeko saiakerak egiten ari diren honetan Aiarri bezalako herri aldizkari batek zer funtzio bete dezake?

T.T. Iritzi ezberdinen berri jasotzea, horrela herritarrek hobeto ezagutuko dute auzokoaren iritzia eta posizionamendua. Baliagarria da, baita ere, gatazka konpontzea ez delako soilik alderdi politikoen eginkizuna, nolabait herritarrengana eta bizikidetzaren arloan lanean ari diren taldeengana iritsi behar da.

Prentsa lokala beti iruditu zait interesgarria. Hemen tokiko prentsa euskalduna badaukagu baina ez daukagu horren pareko prentsa erdaldunik euskaraz ez dakitenengana iristeko. Eta gai horri ere buelta bat eman beharko genioke noizbait.

'MARTXOAK 8, 8 EMAKUME' KALEJIRA ANDOAINEN

Itzalpetik atera, euren ereduarekin itzala emateko

Eguzki izpiek gogor jo zuten larunbat eguerdian, "Martxoak 8, 8 emakume" kalejira egin zen bitartean. Eguraldia okertu aurretik, astroek bat egin zuten emakumeen aldarrikapenarekin. Andoainen

urteak daramatzate itzalpean ari diren emakumeen lana argitara ateratzen. 2017an beste zortzi gehiagoren lana nabarmendu zuten. Itzal luzeko emakumeak guztiak, gizartearentzat eredu izateraino.



Saritu guztiak elkarrekin ateratako argazkian, Goikoplazan. Eguraldi ederra lagun izan zuten kalez kale ibiltzeko.

Berdintasunaren aldeko kalejirak Bastero, Kiroldedia eta Kale Nagusia zeharkatu ondoren Goikoplazara iritsi zen. Eta han emakumeen puzzlea osatu zuten, zortzi pertsona eta taldrei eskainitako omenaldi ekitaldiarekin. Dantza eta musika saioek osatu zuten, Jone Larrañagak aurkeztutako ekitaldia. Lehenik eta behin Deidar elkartekoak omendu zituzten, euren esker Andoainen urtean dagoen ekitaldirik sonatuena egiten baita: Andoingo Piano jaialdia. Euskal Herri osoko eskola eta piano jotzaileentzat ezinbesteko erreferentzia da. Ardura nagusia hiru andoaindarrena da, hirurak emakumeak: **Ainhoa Aiertza**, **Txitxu Castro** eta **Myriam Ulanga**.

Haien atzetik emakume borrokalaria bat nabarmendu nahi izan zuten: **Angela Velo**. Sekula amore eman ez duenaren adibidea da, ia bizitza osoa gaixotasun larria duen alabari eskaini baitio.

Edonor hunkitzeko modukoa da bere kasua. Ez zaio atzean geratzen **Maite Belamendia** herri langilea. Udal brigadan lan egiten duen emakume bakarra da. Ez da batere erraza izan bere ibilbidea, baina gaur gaurkoz lankideen errespetua irabazi duela esan daiteke. Bere lanaz harro dago, eta biziki maite duela aitortzen du. Larunbat eguerdian erabat hunkituta agertu zen. Senideak ondoan bazituen ere, zeruari keinu eginenez gogoan hartu zituen mundu honetan falta zaizkion gurasoak edota semea.

Berdintasunaren bidean lan munduan zeregin asko dago egiteko. Kirolean, adibidez, urratsak ematen ari dira azken aldi honetan. Leizaran eskubaloi taldea horren eredu da, eta horregatik aurtengoan Andoingo kirol talde horri omenaldia egin zaio. Taldearen izenean omenaldia jaso zuten Eva Gutierrez le-

hendakariak eta Haize Irulegi eta Toñy Lopez zuzendaritza taldeko kideek.

Elkartasunean eredu da **Beatriz Amondarain**. Berari eta Caritas taldeko beste hainbat lagunei esker, beharra duten familia askori elikagaiak, arropa eta heziketa eskaintzen dizkiete. Eta baita ere gertutasuna ere. Ezinbestekoa da haien lana, garai zail hauetan.

Miren Etxezarreta, kanpokoan begiradepan, borrokalaria eta heroia izatera iritsi daiteke. Ezberdina da gurgildun aulkian bizi beharra duelako. Baina berak ordea naturaltasun osoz darama bizimodu hori, eta Basteroko aurkezpen ekitaldira hurbildu zirenei algarak eta negar malkoak, biak, azaleratu zitkien. "Bizitza honetan ez nago negar egiteko" adierazi zuen, bertan zirenen txalo zaparrada jasoz. Larunbateko kalejiran pozarren zegoen, irribarrea ahotik kendu ezinik.

Kontxi de la Fuente egonkortasunaren ispilu da. Duela 40 urte etorri zen Andoainera bizitzera, eta gaur gaurkoz Ondarreta ikastetxeko erreferentziatutakoa da. 18 urtez zuzendari lanetan ari da, Andoingo hezkuntza komunitateetako baten arduradun nagusi bezala.

Kultur mailan, kalejiraren antolatzaileek **Batukada feminista** omendu zuten. Duela urte batzuk ahalduz eskolatik abiatu zen taldea, eta geroztik hainbat agerpen egin ditu jendaurrean. Larunbatean, nola ez, talde handi samarra, musika trasteak soinean, kalejiran parte hartzeraz hurbildu zen.

Andoingo plaza nagusian beste zortzi emakume edota talderen lana azalerazi zen, berdintasunaren bidean eredu-garri direnak. Ekitaldi polita da, eta hainbat herrikideren lana itzaletik argira ateratzeko behar beharrezkoa da.

Argazkiak, bideoa: Aiurri.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

'MARTXOAK 8, 8 EMAKUME' KALEJIRA ANDOAINEN



Maite Belamendia lekukoa eramaten Deiadar elkarteko hirukotearen aurretik.



Bea Amondarain, Caritas elkarteko kidea.



Kontxi de la Fuente, Ondarretako zuzendaria.



Zumba taldekoek emanaldi berezia eskaini zuten.



Miren Etxezarreta, omenaldi ekitaldiaren ostean, Emeki Emeki taldeko kideekin batera.



Udal Musika Eskolako Bandako hainbat kide Bastero kanpoaldean aritu ziren ekitaldia girotzen.



Angela Velo lekukoa hartzeko unean, Kale Nagusitik Goikoplazarako igoeran.



Batukada feministako Arantxa Urtasunek Goikoplazaraino eraman zuten kalejiraren lekukoa.



Urki dantza taldeko kideek agurra dantzatu zieten aurtengo omenduei.



Kiroldegiaren atarian lekukoa eramán zuten Leizaran eskubaloi taldeko Haize Irulegik, Eva Gutierrezek eta Toñy Lopezek.

URTEURRENA

Udal Musika Eskolako Bandaren hogeigarren urteurrena

Aparteko kontzertuarekin ospatu nahi du Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandak bere 20. urteurrena. Egungo Banda osatzen duten musikariak eta iraganean osatu dutenak, denak Basteron bilduko

dira erreperitorio anitzeko kontzertua eskaintzeko. Prestaketa lanean ahalegin berezia eskatu dien kontzertua izango da Bandak Basteron martxoaren 24an eskainiko duena.

Bi partetan banatuko da emanaldia. "Lehenbiziko zatia, gaur egungo Bandak osatuko du, bere 20 urteko historia izan dituen lehenbiziko hiru zuzendariekin, hots, Aitor Gaston, Gorka Mujika eta Mirari Irurzunekin. Kontzertuaren bigarren zatian, egungo Banda horri iraganean kide izan dituen musikariak gehituko zaizkio, eta niri tokatuko zait zuzendaria izatea", azaldu zuen Mikel Emezabalek.

Arrazoi bat edo beste zela medio Bandan jarraitzerik izan ez zuten kide ohiek kontzertu honi begira erakutsi duten prestutasuna azpimarratu nahi du Emezabalek: "Gonbidatu ahala, poza eta ilusioa agertu dute guztiek, eta gehienek eman digute baiezkioa; ez genuen espero gure planteamenduak hain harrera ona izango zuenik".

85 MUSIKARIEN KONTZERTUA

45 bat kidek osatzen dute egungo Banda, eta gonbidatuekin, guztira 85 bat instrumentu jole batuko dira Basteroko oholtzan. Horrenbeste musikari eta hiru zuzendari ohi elkartuta ikustea kontzertuak daukan aparteko pizgarrietako bat izan daiteke.

Baina baditu gehiago musika zuzenean maite duen edonorentzat. Hain zuzen ere, egitarauan, Tchaikovsky konposatzailearen "1812 obertura" izeneko pieza joko dute. Abestiak badauka bere apartekotasuna, Emezabalek zehaztu duenez: "Orkestra sinfoniko bati begira konposatutakoa da, zailtasun handikoa. Gure Banda ez da profesionala, eta egundoko ahalegina eskatu digu hura menperatzea. Aurtengo ikasturteko erronka izan da guretzat; bandaren ibilbidean urrats kualitatiboa dela esan daiteke. Kide guztien konpromisoa eskatu du, eta polita izan da entseguen prozesua jarraitzea. Basteroko auditoriora hurbiltzen diren entzuleek daukate azken hitza, baina erronka gainditzekotan gaudela iruditzen zaigu".

BANDAREN TRADIZIO HANDIA ANDOAIN HERRIAN

XIX. mendearen hondarrean sortu zen Andoaingo Udal Musika Banda, eta hurrezkero historia oparoa eduki zuen XX. mendean zehar Eulogio Saldias, Alberto Agirre eta Luis Fraca zuzendarien eskutik, harik eta 70ko hamarka-



Mirari Irurzun zuzendari ohi, Andoni Alduncin eta Mari Carmen Cayetano Bandako kideak eta Mikel Emezabal gaur egungo zuzendaria.

dan desegin zen arte. 1997an berreskuratu ahal izan zen Banda Mikel Mate, Aitor Gaston eta beste zenbait musika irakasleen eta Garbiñe Egibar kultura zinegotziaren ahaleginari esker. Harrezkero, ehundik gora emanaldi egin ditu auditorioetan zein kalean, eta formatu anitzetara egokitzen jakin duela erakutsi du; horren froga dira, besteak beste, Oskorri taldearekin eta Pirritx eta Porrotx pailasoekin batera egindako emanaldiak.

Urte horietan guztietan Andoaingo musikari gazte eta heldu ugari Bandako kide izan da noizbait. Udal musika eskolako musikari askorentzat ikasten eta sakontzen jarraitzeko leku bikaina suertatu da.

Lau musikari dira hasiera-hasieratik jarraitzen dutenak Bandan, Aingeru Zabala, Maria Carrera, Eider Jalon eta Mari Carmen Cayetano. Ez da batere lan samurra 45 musikaririk osatutako taldea bide onetik eramatea, baina klarineta jotzen duen Cayetanok aipatu du non egon daitekeen sekretua: "Bandaren hastapenetan adin diferentziak

handiak ziren kideen artean; batzuek aurreko aroan Luis Fracaren Bandan parte hartu zutenak zeuden, eta geu berriz gaztetxoak ginen, oraindik ikasten ari ginenak. Nolanahi ere, oso harreman ona eduki genuen guztion artean; ez zen bereizketarik egon. Izan ere, giroa sana eta jatorra denean erraztu egiten dira gauzak; ilusioz joaten zara entseguetara eta gogoz betetzen saiatzen zara Bandarekin hartuta daukazun konpromisoa. Gainera, geroztik atzetik etortzen diren gazteekin gurekin zaharagoek jokatu zuten eran jokatzeko saiatzen gara, zainduz eta behar denean lagunduz. Gehiago esango dut, orain datozkigun gazteek egundoko maila daukate, eta batzuetan alde-rantziz gertatzen da, eurek izaten dira guri erakutsi behar izaten digutenak".

Andoni Alduncin saxofoi jotzailea da azken aldian Bandarekin bat egin duen azken gaztea, eta Mari Carmen Cayetanok esandakoa berrestera dator: "Berehala integratu naiz Bandan, ez dut inongo zailtasunik topatu bidean. Bandan sartu aurretik gauza handia zela

Martxoaren 24ko kontzertu berezirik gonbidapenak martxoaren 19tik aurrera eskuratu ahal izango dira dohainik Basteroko harre-ran

ikusten nuen Bandak errespetua sortzen zuen. Ohorea behar zuela izan bertan jotzea iruditzen zitzaidan, eta orain barrutik ezagutzeko aukera daukadalarik, berdin pentsatzen jarraitzen dut".

Alduncin bezalako musikari gazteen jarrerarekin, ikusita dago aspaldi gainditu zela 70eko hamarkadan Andoaingo Banda desegitea eragin zuen arrazoietako bat, hots, musikari gazteek Banda musika formatu zaharkitutzat jotzea.

MAILA HANDIKO BANDA

Bandak egun daukan musika mailaz galdetuta, Emezabal zuzendariak ez du zalantzarik agertzen: "Hamabi bat urte-tik hona igartzen da Bandak talde homogeneoa osatzen duela. Hasierako ur-

URTEURRENA



Mikel Emezabal, Gorka Mujika, Aitor Gaston eta Mirari Irurzun Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandak izan dituen lau zuzendariak elkarrekin.

“Musikariek musikarekin gozatzeko aukera emateaz gain, Bandak musikazaleei kalitatezko eskaintza ematen die”

Mikel Emezabal, zuzendaria

teetan, ezberdintasunak nabarmentzen ziren kide batzuen eta besteen artean, beterranoen eta ikasleen artean esan nahi dut. Gaur egun ez da horrela gertatzen. Gora egin du musikariaren arteko parekotasunak eta konpenetrazioak, eta horri esker, bandak sonidoan irabazi egin du”.

Mikel Emezabalek zein Mirari Irurtzunek uste dute Andoaingo Banda betetzen duela funtzio jakin bat. “Musikariek musikarekin gozatzeko aukera emateaz gain, Bandak musikazaleei kalitatezko eskaintza ematen die” adierazi du Emezabalek. Zera gaineratu du Irurtzunek: “Gauza zoragarria da hainbat instrumentu elkartzea eta ikuspegi akustiko batetik soinu natural bat eskaintzea, horren ondo armonizatuta dauden musika piezak entzuleen gozagarri jartzea”.

Andoaingo herriak halako Banda puska edukitzea beti ez dela behar bezainbeste baloratu aipatu du Mari Carmen Cayetanok. Ostiraleko kontzertu berezia zenbait andoaindarrentzat herri batek kalitatezko Musika banda edukitzearen balioaz jabetzeko baliagarria izan daitekeela uste du.

Cayetanok Banda osatzen duten musikari guztien izenean gonbidapena luzatu die andoaindar guztiei, ostiraleko hitzordura hurbildu daitezten.

SARRERA DOAN

Martxoaren 19tik aurrera, larunbaterekin, eskuratu ahal izango dira gonbidapenak Basteroko harreraren. Sarrera doakoa izango da. Bi egun lehenago, Xabier Huitzi Bandako kideak hitzaldia eskainiko du.

Musikari ugari igoko da taula gainera

Bandako kideak: Hauexek dira Basteroko emanaldian zuzenean arituko direnak: Ander Julian, Ander Otxoa, Claudia Alduncin, Eider Iturriondobeitia, Eider Jalon, Eneko Aldaz, Garbiñe Guedejo, Irene Requeijo, Jose Luis Perez, Josu Otxandorena, Maren Petrikorena, Mari Cayetano, Maria Carrera, Miren Imaz, Uxue Iturriondobeitia, Igor Ruiz, Agustín Mazkiaran, David Gutierrez, Maria Rubio, Jorge Garcia, Nerea Alonso, Ainhoa Urkola, Txisti Ariztimuño, Mikel Alcántara, Maider Tapia, Xabin Mujika, Xabier Huitzi, Estibalitz Zubeldia, Leire Izagirre, Nerea Alonso, Edu Fraile, Elena Gorrotxategi, Juanfe Moyano, Andoni Alonso, Aitor Alkain, Aingeru Zabala, Txixu Castro, Andoni Alduncin, Jose Ramon Berrondo, Jaime Eguzkitza, Xabier Ibarren, Koldo Salaberria, Xabier

Otamendi, Arantxa Irigoras, Joxeba Huitzi, Iñaki Urruzuno, Julen Barrio eta Mikel Emezabal (zuzendaria).

Gonbidatu bereziak: Emanaldia berezia denez, hainbat kolaboratzaile zuzenean arituko dira. Askotxo dira, hauexek: Andoni Beriain, Goretti Otegi, Xabier Ucin, Jasone Etxebeste, Mikel Mate, Asier Lizaso, Ana Belen Garcia, Amets Etxeberria, Eugenio Delgado, Imanol Iribarren, Carlos Rubio, Dorleta Huitzi, Odile Txueka, Elias Ucin, Nerea Hernandez, Aitziber Zulaika, Aitor Alcántara, Iker Gomez de Segura, Jesus Mari Beristain, Iñaki Aierbe, Joxema Setien, Asier Guerrero, Ane Botas, Amaia Gibelalde, Marixi Sesma, Eneko San Jose, Ibon Manterola, Mirari Ucin, Elisabet Arrese, Ivan Vicente, Jose Luis Fitero eta Iñigo Muñoz.

HITZORDUAK



BANDAREN IBILBIDEA

■ Hitzaldia eta emanaldia:

Xabier Huitzik Bandaren ibilbideari buruzko hitzaldia eskainiko du. Bandako kidea izateaz gain, Andoaingo musika historiaren ezagutza handia du. 2012ko Leizaur 12 aldizkarian Andoaingo Bandaren historia bildu zuen. Mugaz taldeak ekitaldian parte hartuko du.

19:00. Bastero, ekitaldi aretoa. Martxoak 22, asteazkena.

BANDAREN URTEURRENEKO EMANALDI BEREZIA

■ Kontzertua:

Emanaldi berezia eskainiko dute, hogeiei urteko ibilbidean izan diren lau zuzendarien parte hartzearekin. Mikel Emezabal, Gorka Mujika, Aitor Gaston eta Mirari Irurzun zuzendarien esanetara bandako kideez gain, gonbidatu berezien parte hartzea iragarri dute. 21:30. Bastero, auditorioa. Martxoak 24, ostirala.



Kontzertua eskainiko duten hainbat musikari, asteartean egin zuten entseguan.



KIROL ALBISTEAK

Urnietako txapeldun handia

Lesioetatik errekuperatzeko bederatzi hilabeteko geldialdiaren ondotik, Jokin Lizeaga lehiaketan bete-betean murgildu da berriro. Modu ezin hobegoan, gainera, martxoaren 5ean Aiako

mendi lasterketa irabaziz eta joan zen igandean Salamancako Tres Valles mendi lasterketa irabaziz. Hangoan probako errekor berria ipini zuen, gainera.

Orain, hiru haurren aita ere bazara. Nola-ko eragina dauka horrek zure entrenamenduetan eta beharrezko atsedenean?

J.L.: Bai, hilabete da hirugarrena jaio zela eta horrek eragin zuzena dauka. Lan gehiago pilatzen da etxean, atsedena eta loa ere apur bat gutxitu dira baina bizitza honetan, familia, osasuna, eta lana jartzen ditut lehenik. Eta ondoren kirola. Nere aldetik ahalegina egingo dut goi mailako lehiaketei eusteko, eta ez bada posible, mantsoago ibiliko naiz eta beste helburu batzuk markatuko ditut.

Gauzak horrela, nola aurreikusten duzu denboraldi berria?

J.L.: Euskal selekzioaren atea irekita daukat, beti kontaktzen baitute nirekin. Munduko Kopako probatan parte hartzera animatu naute. Lehenengo proba puntuagarria Zegamakoa izango da, nire lasterketarik kuttunena. Beraz, orkatilak ondo erantzuten badit, eta hemen dik maiatzera ondo banabil, Zegaman lasterketa ona egitea izango nuke helburua. Eta ondoren, Munduko Kopako probatan murgilduko nintzateke.

Zure prestaketa, beraz, Zegamara momenturik onenean iristeko bideratuko al duzu?

J.L.: Bai, otsailean nola ibili naizen jakinik, arazorik ezean, sasoiko iritsiko naiz. Zegama on bat egiteko gogoz naingo.

Herrira itzuliz, Urnietako Mendi Lasterketa 5 urteko ibilbidearen ondoren desgertu egin da. Zer gogoeta eragiten dizu?

J.L.: Pena handi bat izan da. Herriarentzat galera ere bai, asteburu polita izaten zelako. Kirolari lotuta, Adarra eta gure inguruak erakusteko aukera paregabea zen, baina, horrela suertatu dira gauzak, eta onartu egin behar.

Hasierako bizpahiru urteetan neu ere antolakuntzan ibili nintzen, azken bi urteetan, arrazoi pertsonalak medio, antolakuntzatik pixka bat urrundu banintzen ere. Orain, dirudienez, antolatzeko jendea falta da eta horrek proba etetea ekarri du.

Eten diozu, berriro martxan ikusteko esperantzarik baduzulako?

J.L.: Euskal Herriko lasterketarik hobenetariko sortzea lortu zen, eta maila berekoa izatea ez da erraza izango, bai



Jokin Lizeaga urnietarra aurreko igandean La Albercan ipinitako helmugan. 36 kilometroko lasterketa bikaina egin zuen, marka onena bederatzi minutuetan hobetuz. Argazkia Jose Vicentek atera zuen.

na gure Adarran berriro lasterketa bat izateari aukerak ikusten dizkiot. Hori bai, antolakuntzan talde ugariago bat beharko luke, erabakiak eta lanak eta jende gehiagoren artean banatuz.

Kirolariak konsziente izaten al zarete antolatzaileek egiten duten lanaz?

J.L.: Normalean, kirolaria konsziente izaten da zer-nolako lasterketetan parte hartzen duen, eta hori antolatzeak suposatzen duen esfortzuaz. Lasterketa guztietara familiarekin joaten naiz eta haiek ere nabaritzen dute soilik korrikalariei zuzendutako lasterketa edota herri mailako festa bat den, umeei zuzendutako ekintzekin, ondorengo bazkariarekin eta abar. Osagai guzti horiek asko laguntzen dute lasterketa egoki bat izaten, eta Urnietakoa halakoxea zen.

Urnietako Mendi Lasterketak asko lagundu du herri korrikalari zein zaletu berriak sortzen. Orain beherakada etor liteke?

J.L.: Jende bat abiatu da bere mugak bilatzera. Baginen berrogeiren bat urnietar parte hartzen genuenak. Horiek arra barrura sartuta daukate jada. Bestetik, eta zorionez, prentsak Urnietako korrikalarien berri ematen jarraitzen du. Nire emaitza onek ere laguntzen dute mendi lasterketekiko grina herrian iraurarazten, eta osagai guzti horiekin, esango nuke ez dela beherakada nabarmenik izango.

Entrenatzaile moduan jarraitzen al duzu?

J.L.: Lekarozen (Nafarroa) heziketa fisikoko irakasle izateaz gain, eta nire denbora nahiko mugatua izanagatik, jarraitzen dut atleta batzuen entrenatzaile

“Euskal Herriko lasterketarik hobenetariko sortzea lortu zen Urnietan, eta gure Adarran berriro lasterketa bat izateari aukerak ikusten dizkiot”

Jokin Lizeaga

le izaten. Gehienak mendi lasterkariak dira. Saiatzen naiz haien bizitzara egokitutako plan pertsonalizatuenak izan daitezen, kontuan edukiz beraien asmoak, lan egoera, familia, ordutegia...

Haientzako prestatutako planak zeure buruari ere aplikatzen al dizkiozu?

J.L.: Nahiko anarkikoa naiz, hortan. Entrenamenduen plan bat jarraitu beharko banu, uste dut ez nukeela korrika egiten jarraituko. Egun bakoitzeko entrenamendua egun berean antolatzen dut, aurrez entrenatzeko zenbat denbora izango dudana ez baitut jakiten. Hori bai, zentzu edo logika bat jarraituz aritzen naiz beti. Horrela entrenatzeak gauza onak eta txarrak ditu, presiorik gabe egiten dut, eta aldi berean kaltea izan liteke behar bezain beste ez dudalako egiten.

Zanpatuz Mendi Elkartearen sortzailetako bat zaitugu. Elkartek zein hutsune bete du Urnietan?

J.L.: Herritarrek eman dioten erantzuna ikusita garbi dago Urnietan gune edo alor bat betetzera etorri dela. Bi urte bete ditu, eta aurreikusten genuena baina erantzun hobea izan du. Iaz 120 bazkide elkartzea lortu genuen. Hilero irteera bat antolatzen da, erantzun bikainarekin, gainera. Batz best 50-60 urnietar mendira bideratzea lortzen dugu. Harro gaude, gure ibilaldietara oso jende ezberdina etortzen delako.

Jarraitzaile sutsuak dituzu...

J.L.: Bai, baditut hainbat herritar nire lasterketekin bat eginez beren igandeko plana egiten dutenak. Aiako lasterketara joango nintzela gutxi batzuei aipatu nienean, dozena bat urnietar bertaratu ziren; garaipenetik gertu ibiltze horrek jendea ilusionatzen du. Pozten nau nire garaipenek eurenak bihurtzen dituztelako. Beraien animo eta interes horrek bizia ematen didate.



KIROL ALBISTEAK

Larunbat arratsaldean 17:30ean hasita, Andoingo Arraten

Emakumezkoentzat pala topaketa irekia Arraten



laz egin zuten lehen topaketa, eta larunbat honetarako bigarrena antolatu dute.

Palaz jokatzeko gogo duen edozein neska edo emakume jardunaldi irekira gonbidatuta


dago. Deialdi irekia da, beraz. Parte hartzen dutenek, gainera, kamiseta bana jasoko dute. Eki-

taldia **Gazteleku pilota elkarteak** egin du, **Emakumea pilotari** ekimenarekin elkarlanean.

Egun osoko irteera larunbat honetan, Zanpatuz taldearen eskutik

Luz Ardidenera irteera

Zanpatuz taldeko 48 lagun Luz Ardiden aldera abiatuko dira, larunbat honetan. Arrakasta handia izan du deialdiak, bistakoa den bezala. Antolatzaileek ohar garrantzitsua helarazi nahi die parte hartzaileei: Irteera orduan goizeko 06:00tan denez, partaide guztiak garaiz hurbil daitezela Matxo taberna ondoko bus geltokira. Eguraldi ona iragarritako dagoenez, gozatzeko egun horietakoa izango da. Iluntzerako etxean izango dira.



la berrogeita hamar lagun abiatuko dira larunbat honetan, Luz Ardidenera.

LEHIAKETA EZBERDINAK

FUTBOLA, ERREGIONAL MAILA

Asteburuko emaitzak:	
Urnieta1-1 Astigarraga	
Sanpedrotarra 3-4 Euskalduna	
Asteburuko partidak:	
Allerru-Urnieta	
Euskalduna-Añorga	
Sailkapena:	
1. Añorga	54
2. Allerru	51
4. Euskalduna	37
11. Urnieta	26

ESKUBALOIA, SENIOR MUTILAK:

Asteburuko emaitzak:	
Eibar 22-23 Urnieta	
Leizaran 30-18 Elgoibar	
Asteburuko partidak:	
Urnieta-Ormaiztegi	
Ordizia-Leizaran	
Sailkapena:	
1. Ordizia	33
2. Urnieta	26
4. Leizaran	20
5. Legazpi	20

SASKIBALOIA, GANBARA

Asteburuko emaitzak:	
Ganbara SenM 66-67 Sharks	
Ganbara JubM 44-49 Take	
Mundarro 47-19 Ganbara KadM	
Asteburuko partidak Allurralden:	
09:00 Ganbara KadM-Hernani	
Martxoak 19, larunbata.	
Sailkapena, senior maila:	
1. Azkune	35
2. Zarautz ZAST	34
10. Ganbara	27

Orioko mendi lasterketa eta Hernaniko lasterketa



SAGAR LASTERRA - HERNANI

Eguna: 2017.03.11
Ibilbidea: 8,9 kilometro.
Helmugaratuak: 320.

1	29:55	Raul Gomez
2	30:17	Ruben Aranburu
3	30:21	Gaizka Sarasola
4	30:28	Asier Martinez
5	30:31	Garikoitz Arregi

Urnietarrak:

16	32:08	Mikel Costas
17	32:19	Norman Cuenca
19	32:34	Xabier Almorza
38	34:02	Unai Legarreta
69	36:51	Mikel Olano
73	37:12	Oscar Pavón
89	38:09	Gorka Pardavila
117	39:55	Ion K. Iribar
128	40:37	Gorka Dominguez
137	41:09	Gorka Elozegi
170	43:24	Oier Egaña
227	47:35	M Carmen Martin
228	47:35	Maite Begiristain
229	47:36	Almu Salas

ORIOKO MENDI LASTERKETA

Eguna: 2017.03.12
Ibilbidea: 21 kilometro.
Helmugaratuak: 312.

1	01:49:29	Ruben Ruzafa
2	01:50:00	Markel Urigoitia
3	01:51:24	Jon Ugalde
4	01:52:06	J.Maria Bernedo
5	01:53:07	Xuban Ezeiza

Urnietarrak:

15	02:01:40	Igor Amantegui
19	02:02:13	Unai Martinez
21	02:02:42	Mikel Legarreta
102	02:23:08	Iñaki Narbarte
106	02:23:44	Iñaki Baños
122	02:26:53	Igor Ruiz
161	02:34:45	Mikel Olano
168	02:35:43	Mikel Garmendia
170	02:36:02	Adrian Garcia
244	02:52:17	Eñaut Ayerza
276	03:02:47	Jose Luis Lopez
287	03:10:24	Ainara De Miguel
Andoaindarrak:		
30	02:05:30	Ivan Piñon
59	02:14:22	Oier Escudero
84	02:19:19	Jaime Real
125	02:27:09	Iker Mujika
153	02:34:13	Jagoba Arostegi
224	02:45:26	Roberto Cillero

Andoaindarrak:

49	35:20	Maikel Gomez
53	35:35	Javier Ruiz
76	37:31	Martin Askarai
86	37:54	Jagoba Aróstegi
101	38:55	Arantxa Ruiz
132	40:44	Dioni Agredano
149	41:45	Jonatan Santano
160	42:39	Patxi Nieto
162	42:42	Martxel Prego
183	44:23	Amaia Lacalle
185	44:24	Begoña Cao
199	45:58	Peio Belaunzarán
203	46:15	Javier Gallo
209	46:26	Igor Olazaguirre
225	47:14	Aitor Ugartemendia
315	58:19	Laura Corchero

Fursenko eta Pikabea Beasaingo proban garaile



Zuriarrain, Pikabea eta Fursenko podiumera igo ziren, Beasainen.

Aurreko larunbatean Beasainen aritu ziren **Andoingo Txirrindulari Eskolako** kideak, emaitza bikainak eskuratuz gainera. Alebin mailan **Iza-**

ro Zuriarrain bigarren sailkatu zen eta infantil mailan **Dani Fursenko** eta **Laiene Pikabea** irabazle izan ziren.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
RETERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etzez etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuko eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urrieta), **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MARTXOAREN 16TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

- Andoain, Bastero**
- "La ciudad de las estrellas" Lar, 18. 19:30-22:00. Igandea, 19. 19:30. Astl, 20. 19:30-22:00.
 - "Blinky el koala" Larunbata, igandea. 17:00.
 - Datorren asteburuan: "Manual de un tacaño", "Lego Batman, la película".
 - Dokumentala, bake e: "Reconciliacion". 19:00 Bastero Martxoak 16, osteguna.

- Urrieta, Sarobe**
- "Angry birds" 16:00, 18:30. Martxoak 19, igandea.

Odolemaileak

- Urrieta**
- 18:30-20:30 Denda Berri Anbulatorio Zaharra. Martxoak 22, asteazkena.

Farmaziak

- Andoain**
- Pajares. Zumea kalea, 20. Gaeuz: **Etxebeste**. Martxoak 18 eta 19.
- Urrieta**
- Tanco. Idiazabal, 39. Gaeuz: **Etxebeste**. Martxoak 18 eta 19.

Martxoak 8

- Andoain**
- Martxoak 17, ostirala. **Dantza:** "Maurizia" Aukeran dantza taldearen eskutik. 21:30 Bastero. 12 euro.
 - Martxoak 18, larunbata. **Erakusketa:** "El burdel de Lola" Silvia Ayerraren erakusketa ikusteko azken eguna. Bastero.

Ikuskizuna

- Urrieta, Sarobe**
- "Pupu eta Lore" eta aitona Manolo dira protagonistak. Sarrerak salgai Sarobeko bulegoetan. 16:00-18:00. 6 euro. Martxoak 26, igandea.

Korrika

- Urrieta**
- Korrika batzordeak, Udalarekin lankidetzan, Xilipurdi taldearen "Salam" kale antzerkia eskainiko du Zubitxo plazan. 19:00 Zubitxo plaza. Martxoak 17, ostirala.

Erakusketa

- Urrieta, Lekaio**
- Bizipozari buruzko erakusketa, Egape ikastolaren eskutik. 16:45-19:00. Martxoak 28 eta 29.

Musika

- Andoain**
- "Paddam musique" Estefania S. Wulf abeslariaren eta Iñaki Miguel piano-jotzailearen eskutik. Edith Piaf, Jacques Brel, Charles Aznavour edo Adamoren kantutak entzungai. 20:00. Ekitaldi aretoa. Martxoak 18, larunbata.
 - Pasetartout taldea zuzenean. 22:30. Gaztetxea. Martxoak 18, larunbata.
 - Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandaren hogeigarren urteurrena. Hitzaldia: Xabier Huitzi, Mugaz taldearen musikarekin osatuta. 19:00 Ekitaldi aretoa. Martxoak 20, asteazkena. Kontzertua: Urteurreneko emanaldia. 21:30 Auditorioa. Martxoak 22, ostirala.

Solasaldia

- Andoain**
- Udal liburutegiaren ekimenez, "La mujer loca" Juan Jose Millasen liburua aztergai izango dute. Izena emateko: Udal Liburutegia. 943 300 615. liburutegia@andoain.eus 19:00-20:30. Bastero Martxoak 28, asteartea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Kimetz! Martxoaren 17an 10 urte! Gizontxo bat eginda zaudete! Ondo pasa, asko maite zaitugu. Etxekoak.

URNIETA

ZORIONAK



Negu Lizeagak martxoaren 15ean 3 urte bete zituen. Beti alai eta beti pozik... Zorionak bihotza!!! Etxekoak

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak pottolo! Handitzen handitzen... Martxoaren 13an zenbat? 5 urte!! Izugarri maite zaitugu, **Alain**. Aita, ama eta Karen.

URNIETA

ZORIONAK



Irati Nuñez Larreagure neska politak martxoaren 13an 8 urte! Mila zorion denon partetik! Muxu asko maitea.

ANDOAIN


ZORIONAK



Clara gure etxeko txikiak dagoeneko 6 urte bete ditu. Jarraitu beti bezain alai izaten... Muxu pottoloak!

ANDOAIN

ZORIONAK



Martxoaren 8an 16 urte. Gaztea naiz eta harro nago! **Ibai** patata tortilla egiteko garaia iritsi zaizu! Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Julen Gurrutxagak 5 urte bete zituen martxoaren 15ean. Ondo pasazuenelokan. Lehengusuak.

ANDOAIN

MERKATU TXIKIA

"Pastor Aleman arrazako txakurra hutsaren truke emango nuke, pasiatzeko bakarrik balio du eta. Sokatik umil-umil ibiltzen da". 943 593 157

Harrera familiak Sahara aldeko haurrentzat

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako lansailak, Hurria Sahararekin elkarlanean, uztailean eta abuztuan haur sahararrak hartuko lituzketen familiei zuzendu zaie, "Bueltan" kanpainan parte har dezaten.

Programaren antolakuntzak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ehun harrera familia berri erakartzea helburu du, Tindouff-eko errefuxiatuen


kanpamenduetatik iazko haur kopuru berbera aterako dela ziurtatzeko.

Ezaguna denez desertuko bizimodua ez da erraza udan, tenperatura altuak direlako.

Programan parte hartu nahiko lukeen edozein herritar, Andoaingo Udaleko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jar daiteke martxoan zehar, 943 304 343 telefono zenbakian.

Ia 12.000 kilo elikagai

Hurria Sahara elkarteak aurtengo elikagai bilketan parte hartu duten Andoaingo herritarrak eta erakunde kolaboratzaile guztiak zoriondu nahi ditu, Andoaindik euskal karabanen 11.817 kilo janari, 143 kilo konpresa, 130 oinetako pare eta pale erdi bat botika bidali baitira.



DATORREN AIURRI ASTEKARIA: MARTXOAK 23, OSTEGUNA



Txotx'17

R. ZABALA 943 690 774 Aduna
LARRE-GAIN 943 555 846 Ereñozu-Hernani
OIANUME 943 556 683 Urrieta
GAZTAÑAGA 943 591 968 Andoain
SARASOLA 943 690 283 Asteasu